

MUSIKA. Baionan eta Donostian joko du

NG-k agertokian ospatuko du Galindoren aurkako garaipena

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiarekin behin betiko itxi da zortzi urteko auzibidea

Jon Eskisabel DONOSTIA

Negu Gorriak taldeak orain bai, orain abes dezake *Gure jarrera* bigarren diskoan egiten zuen bezala: «Geurea da garaipena». Izan ere, Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko jenerala *Ustelkeria* kantuarengatik jarritako kereilaren auzitik garaile atera dira taldea eta Esan Ozenki disketea. Espainiako Auzitegi Gorenak arrazoa eman zien iazko ekainean ateratako epaian, Rodríguez Galindoren kereilak baliogabetzen zuten prozedura akatsak zituela argudiatuz, alegia, auzipeturi ez zegoen Miguel Camposen egile eskubideak bortxatzen zituen aurreko zigor epaiak, Auzitegi Gorenaren arabera. Ebazpenaren aurkako errekurtsioa jartzeko aukera ez dute erabili Galindoren abokatuek, eta, ondorioz, auzia behin betiko itxi da.

Horren berri eta beste zenbait nobedaderen berri emateko agertu ziren atzo Negu Gorriak taldeko eta Esan Ozenkiko kideak prentsaurrekoan. Denen ize-nean Fermin Muguruzak esker-erak eman zizkien ia zortzi urte iraun duen prozesu luze honek lan laguntza eskaini djetenei. «Urte hauetan guztietan jende mordoia ibili da gurekin: musika taldeak, kultur munduko jendea, Euskal Herrikoa zein nazioartekoa, Hitz Egin! kontzertu erraldoia antolatzen lagundu zuen jendea, *Ustelkeria* diskoak erosi zitutenak... Zuei esker prozesu luze honen zama arinago eraman ahal izan dugu, elkartasunaren indarra sentitu dugu gure barnean, eta erakutsitako adiskidetasunak harrota-sunez bete gaitu une askotan. Beraz, guztion garaipena dela uste dugu; hitzak irabazi du».

Muguruzak gogora ekarri zuenez, taldearen eta disketearen defentsak bi ildo jorratu zituen: batetik, prozedura aldetik kereila gaizki formulatuta zegoela argudiatu zuen —azkenean hori nagusitu da—, eta bestetik, adierazpen askatasunaren aurkako erasotzat jotzen zuen kereila. Bigarren hori zen gairan-

FERMIN MUGURUZA

Negu Gorriak taldeko kidea

«Auziaren urteotako zama arinago eramaten lagundu diguten guztien garaipena da hau; hitzak irabazi du»

«Hamabost milioi pezetak EGUNKARIA, 'Gara' eta Xiberuko Bozaren artean banatuko ditugu, hitzaren askatasunaren alde»

tzitsuen taldearentzat, baina lehenengoak jada kereila deuseztatzen zuenez, Gorenak ez zion defentsaren bigarren argudioari heldu behar izan.

Berriz agertokian

Auziaren mamia argitu gabe geratu izanak ez du Negu Gorriak eta Esan Ozenkiko kideen poza lausotu; alderantziz, 1996an azken kontzertua eman ondoren agindu zuten, taldea berriz elkartuko da Galindoren aurkako garaipena ospatzeko.

Bi aukera izango dira Negu Gorriak berriz oholtza gainean ikusteko: otsailaren 23an Baionako Lauga kiroldegian, Piztu elkartearen alde, eta otsailaren 24an Donostiako Anoeta Belodromoan, Senideak elkartearen alde. Bietan Banda Bassotti eta Selektah Kolektiboa izango dituzte lagun. Taldeen aukeraketazaila izan zela azaldu zuen Kaki Arkarazok: «Zerbait berezia egin nahi genuen, baina bestetik, Negu Gorriak taldeak beti egin duen bezala, etorkizun handiko talde gazte bati aukera eman nahi genion jende askoren aurrean jotzeko. Kasu honetan, Selektah hautatu dugu, euskal hip hoparen etorkizuna delakoan baikaude».

Ez da Negu Gorriak-ena ber-ragerpen bakarra izango. Italiako Banda Bassotti 1996an de-segin zen, eta Negu Gorriak-ek bezala, geroztik ez du berriz jo.



GARI GARIALDE

Negu Gorriak taldeko kideak, Baionako eta Donostiako kontzertuen berri ematen duen kartelarekin.

KANTUA

Ustelkeria

Hauxe da Enrique Rodríguez Galindo Guardia Zibileko jeneralak Negu Gorriak eta Esan Ozenki auzipetzeko argudiatu zuen kantuaren hitza, 'Gure jarrera' diskoan agertzen den bezala.

—Eh! Kaki! Enteratu haiz?

—Zer tripako min duk, egon, hago lasai. Lurrikara bezala hator, berriz ere orain.

—Ez al duk irakurri Egunkariak dakarrena? Francisco Rodríguez Galindo, teniente koronelarena?

—Zein? Goardia Zibila? Intxaufondo koarteleko komandantea? Terrorismoaren kontrako arduradun nagusietakoa?

—Jada ez nau ezerk harritzen.

—Baita ondoko ustelkeriaren 'arduradun nagusia'; talde antiterroristak baliatuz, narkotrafiko operazioak egiten zizkian.

—Orduan, Irungo kokaina desagerketaren kasua 'Bidasoa Operazioa' delakoan ziur erlazio-naturik egongo dela.

—Jakina baietz. Duela bi urte maiatzean, Goardia Zibilak tona inguru kokaina harrapatu eta komisaldegian 150 kilo desagertu hituen.

—Tori ustelkeria, txo! Badakik, interes ekonomikoak eta interes politikoak elkartuz gero, gu-reak egin dik.

—Jada, ez nau ezerk harritzen.

—Eh! Kaki! Badakik zer egingo nukeen nik? Ba, droga legalizatu.

—Beno, Amerikan 'ley seca' garaian, inoiz baino mafia gehiago sortu hituen.

—Inoiz baino faltsuztapen gehiago eta gainera inoiz baino gehiago edan zian jendeak.

—Legalizazioa izanez gero, lehenengo arazoa bukatuko duk. Eta ez duk gutxi.

—Jada, ez nau ezerk harritzen.

Hala, berriz elkartuko dira Baionan eta Donostian. Arkarazok azaldu zuenez, Negu Gorriak taldearen ibilbideari estuki lotutako taldea da Erromakoa. «Gurekin jaialdi historiko asko egin ditu, 1991n Erroman

jo zuten gurekin, Hitz Egin!-en ere jo zuten, eta oso harreman berezia dugu haiekin».

Bi kontzertuok prestatzeko datorren astean sartuko dira Negu Gorriak-eko kideak entsegu lokalean. Hogeitamar

abesti inguruko erreperitorioa landuko dute.

Dirua hiru komunikabideren artean banatuko dute

Donostiako Entzutegiak Galindori hamabost milioi pezeta or-

GALINDOREN AUZIAREN AMAIERA

AUZIAREN KRONOLOGIA

1991. Negu Gorriak taldeak *Gure jarraera* bere lehen diskoa kaleratu zuen. Diskoko 17 kantuen artean *Ustelkeria* izenekoak zegoen.

1993KO MAIATZAREN 25A. Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko teniente koronela Negu Gorriak eta Esan Ozenki disketearen aurkako kereila jarri zuen Donostiako epaitegian, *Ustelkeria* kantuarengatik. Kantuak bere ohoreari eta bakoitzaren irudirako eskubideari eraso egiten ziola argudiatu zuen Galindok.

1994KO URTARRILAREN 3A. Donostiako epaitegiak atzera bota zuen kereila, abestiaren hitzetan Galindoren aurkako irainik ez zegoela ebaztuta.

1995EKO EKAINAREN 16A. Donostiako entzutegiak Galindoren errekurtsioa onartu eta hark eskatutako 15 milioi pezetako kalte-ordaina ordaintzera zigortu zituen Negu Gorriak eta Esan Ozenki. Halaber, kantua berriz argitaratzea eta zuzenean jotzea debekatu zien.

1995EKO URRIAREN 28A. *Hitz egin!* adierazpen askatasunaren aldeko kontzertuak 8.000 lagun bildu zituen Oiartzunen.

2000KO EKAINAREN 7A. Auzitegi Gorenak absolutu egin zituen taldea eta disketea, kereilaren prozedura izandako akatsak zirela medio. Galindok ez du erabili errekurtsioa jartzeko epea, eta, ondorioz, auzia itxita dago.



HITZ EGIN! Oiartzungo kontzertuak 8.000 lagun bildu zituen adierazpen askatasunaren alde

Esan Ozenkik ziklo bat amaitu eta agur esango du, diskete berri bati leku uzteko

Jon Eskisabel | DONOSTIA

JITU

Esan Ozenkiko kidea

«Hamar urteotan autogestioan eta independentzian lan egin eta gero, ziklo baten amaieran gaude»

Albiste ugari izan ziren atzo Negu Gorriak eta Esan Ozenkik eman zuten prentsaurrekoan, eta ustekabe handi bat ere. Hain zuzen ere, Esan Ozenkiren berehalako desagerpena eta egitasmo berri baten sorrera iragarri zuten.

Laster kalean izango diren bi diskorekin esango du agur Esan Ozenkik: bata *Ustelkeria*-ren berrargitalpena izango da —1.500 ale baino ez ziren kaleratu 1995ean, erresistentzia kutxa osatzeko—, eta Esan Ozenkiren hamar urteotako ibilbidearen bilduma bat.

«Negu Gorriak eta Esan Ozenkiren ibilbidea elkarrekin joan da beti, eta dagoeneko esan genezake iritsi dela unea. Zenbait gauzak hasiera izaten dute, eta hasiera horren ildotik amaiera. Beste batzuek berriz euren burua eraldatu ohi dute. Negu Gorriak bere jardueraren behin-betiko etetarekin batera, Esan Ozenkiri ere iritsi zaio bere zikloaren amaiera. Esan Ozenki Records kaian

geratuko da atrakatuta, jarduera etengo baitu, baina bizirik izango da betirako». Hitz horiekin iragarri zuen Asier Zulueta disketeako prentsa arduradunak azken urteotan Euskal Herrian izan den rock diskete enblematikoenaren desagerpena.

Hamar urteotan hainbat talderi lehen diskoa kaleratzeko aukera emateaz gain, euskal musika munduratu eta aldi berean, Gora Herriak zigiluaren bidez, munduko zenbait talde Euskal Herriratu dituela Esan Ozenkik gogorazi zuen Zuluetak.

Metamorfosia

«Eta hemendik aurrera zer? Hemendik aurrera gehiago»,

esan zuen Jituk, Esan Ozenkiko partaide eta sortuko den diskete berriaren arduradunak. «Hamar urteotan autogestioan eta independentzian lan egin eta gero ziklo baten amaierara iritsi gara, eta gure harrotasunerako Esan Ozenkiren katalogoa hor uzten dugu, bidaia honen lekuko bezala».

Metamorfosi prozesu baten ondorioz jo zuen Jituk diskete berriaren sorrera, baina ez zuen gehiegi aurreratu nahi izan. «Aterpe honekin gerizpea aurkituko dute Esan Ozenkirekin lan egiten duten taldeak, baita talde eta egitasmo berriak ere». Diskete berria «Esan Ozenkiren jarraipena» izango da, haren katalogoa kudeatuko du, baina ñabardura batekin, Fermin Muguruzak azaldu zuenez: «Lan talde berberak segituko du zuzendaritzan, ni izan ezik». Diskete berria sortzea euskal eszena astintzeko modu bat ere izan daitekeela uste dute.

Disketearen izenaren aurkezpen ofiziala Negu Gorriaren kontzertuetan egingo da.

DATUA

Bi kontzertu

Baionan. Otsailaren 23an, Lauga kiroldegian. Sarrera, 60 liberan. Dirua Piztu elkar-tearentzat izango da. Taldeak: NG, Banda Bassotti eta Selektah.

Donostian. Otsailaren 24an, Belodromoan. Sarrera, 1.500 pezetan. Dirua Sende-ak elkar-tearentzat.

daintzera behartu orduko, zigorrari eta prozesuaren gastuei aurre egiteko hainbat ekimen martxan jarri zituzten Negu Gorriak-ek eta Esan Ozenkik. Horien artean, erresistentzia kutxa bat sortu zuten. Dirua lortzeko, *Ustelkeria* izeneko diskoa kaleratu zuten taldearen argitaratu gabeko kantuekin eta bestelako bitxikeriekin, eta *Hitz Egin!* kontzertu handia antolatu zuten Oiartzunen. Halaber, kontzertu haren bi bideo salgai jarri zituzten *Egin* egunkariarekin batera.

Horrekin batera, hamabost milioi pezetak gordeta izan di-

tuzte denbora luze honetan, ordaintzera behartu baitzitzaizkeen Entzutegiak. Diru hori EUSKALDUNON EGUNKARIA, *Gara* eta Xiberoko Bozaren artean banatzea erabaki dute taldeak eta disketeak. «Diru-hori adierazpen askatasunaren aldeko dirua zen, eta horregatik banatuko dugu hiru hedabideren artean», azaldu zuen Fermin Muguruzak. «EGUNKARIA eta *Gara* momentu jakin horretan alban izan genituen, eskaini zizkiguten euren orrialdeak, euren diseinatzaileak, kontzertuak babestu zituzten eta oso gertutik sentitu genuen haien elkartasuna. *Gara*-ren kasuan, gainera, *Egin*-en ordezkia da, eta sostengatzen du ahotsik ez dutenen adierazpen askatasuna», gaineratu zuen. «Xiberoko Bozari dagokionez, ikuspegi nazionala dugu, eta haiek ere dirua biltzeko deialdia egin zuten. Hor dago euskararen alde egiten duten lana ere. Horiek izan dira dirua banatzeko erabili ditugu irizpideak, jendeak konfiantza eman zigun erabaki horiek hartzeko, eta horrela erabaki dugun», esan zuen Fermin Muguruzak.